

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 2516

*AGINDUA, 2019ko maiatzaren 10ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile izendatzeko dena.*

Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorriz, eta segidan aipatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari, eta goi mailako epaileen izaera honako hauei emango die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolarien, teknikarien eta epaileen izendapenak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak 2019ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, zegokion proposamena egin zuen.

Ondorioz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, eranskinean aipatzen diren pertsonak izendatzea goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Agindu honek onartzen den unetik aurrera izango ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe interesdunei jakinaraztea.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2019koa maiatzaren 10a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2019ko maiatzaren 27a, astelehena

## ERANSKINA

## GOI-MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZENDATUTAKOEN ZERRENDA

Interesduna	Espediente-zenbakia	Modalitatea	Kategoria
Aguirre, Ostolazaga, Eñaut	685/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Amondarain Gaztañaga, Naia	708/19/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Ansoleaga Goirigolzarri, Itziar	688/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Aransolo Ajuria, Goizalde	687/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Artiñano Cuesta, Olga Maria	678/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Bilbao Sertutxa, Oier	680/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Cabrejas Bolumburu, Andoni	682/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Casabella Alonso, Iñigo	668/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Castellanos Soanez, Mercedes	706/19/D	Eskubaloia	Kirolaria
Crespo Sistiaga, Joan	697/19/D	Piraguismoa	Kirolaria
De Castro Bascones, Ruben	676/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
De Julian Arriola, Sergio	704/19/D	Urpeko jarduerak	Kirolaria
Egurrola Hormaetxea, Nerea	673/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Elgezabal Zugazaga, Amaia	683/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Fernandez Nogales, Odei	671/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Fernández Rodríguez, Iñaki	669/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Garay Fernandez, Aingeru	709/19/D	Neguko kirolak	Kirolaria
Goiri Astorquiza, Fidel	689/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Goirigolzarri Orue, Jose Antonio	692/19/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Gonzalez Iglesias, Natxo	715/19/D	Surfa	Kirolaria
Hernanz Obrador, Samuel	711/19/D	Piraguismoa	Kirolaria
Ibañez Saenz-Torre, Rodrigo	705/19/D	Karatea	Kirolaria
Ispizua Larrauri, Batirtze	664/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Lacunza Elizalde, Irati	707/19/D	Urpeko jarduerak	Kirolaria
La Cruz Manso, Aner	681/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Larrazabal Oleaga, Aimar	686/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Loyo Menoyo, Elena	679/18/D	Atletismoa	Kirolaria
Maestu Babarro, Aritz	714/19/D	Neguko kirolak	Kirolaria
Matthews Martín Naiomi Anaiansi	698/19/D	Borroka eta sanboa	Kirolaria
Mezo Olea, Iker	667/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Monasterio Asteinza, Nestor	675/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Nogales Garaizar, Aingeru	670/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Ortega Guerra, Ainhoa	674/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Rojas, Sánchez, Erika Julieth	672/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Ugarte Elordui, Aitor	677/18D	Herri-kirolak	Kirolaria
Unibaso Garaizar, Kepa	666/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Usabiaga Balerdi, Ana	700/19/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Usabiaga Balerdi, Irene	699/19/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Zabala Olagorta, Aitor	684/18/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Zuazubizkar Gallastegi, Illart	701/19/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Otaegi Garmendia, Leire	107/19/T	Neguko kirolak	Teknikaria
Pousada Garcia, Isaac	106/19/T	Igeriketa egokitua	Teknikaria
Usabiaga Balerdi, Ana	105/19/T	Txirrindularitza	Teknikaria